

XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

542

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 18koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, zeinaren bidez onartzen baitira auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztutako 2024. urterako tarifak.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2024ko urtarrilaren 18an egindako bileran, erabaki bat hartu zuen, eta, jende guztia jakinaren gainean egoteko, segidan transkribatzen dira haren xedapenak.

ERABAKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek eskariak aurkeztu dituzte Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren 2024. urterako tarifak berrikusteko.

Hiri barruan bidaiariak auto-taxiz garraiatzeko tarifek prezioak kontrolatzeko arautegia bete behar dute, «autonomia-erkidegoen eremuan baimendutako prezioen» modalitatean, hala ezarrita baitago Zerga-arloko eta jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeko presako neurrien ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 16.4 artikuluan (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Euskadiko Prezioen Batzordeak du prezioen kontrolaren inguruko eskumena, bat etorritik Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuarekin (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduarekin, zeina baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedurari buruzkoa baita (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Aipatutako arauen helburua da nolabaiteko ekonomia-oreka lortzea, premiazkoa baita prezioak ezartzeko mekanismoak kontrolatzea, bizitzaren kostua aintzat hartuta.

2024. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedienteak aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira, eta zerbitzua emateagatikosten egituraren barruan sartzen diren konzeptuetara egokiturik daudela uste da.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko honako udal hauek auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko aurkeztutako 2024. urterako tarifak onartzea, balio erantsiaren gaineko zerga barne dela:

1.– Arrasateko Udala, Debagoiena eskualdekoa:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,2910	1,3442	25,6718	4,2910	2,1440	40,3558

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

2.– Lazkao, Legorreta eta Ordiziako udalak, Goierri eskualdekoak:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,2403	1,3275	25,3552	4,2403	2,1171	39,8501

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

3.– Alegia eta Tolosako udalak, Tolosaldea eskualdekoak:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,8998	1,2029	21,8107	5,5297	1,8298	32,1282

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

4.– Zestoako Udala, Urola Erdia eskualdekoa:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,2417	1,3384	25,5609	4,2725	2,1347	40,1793

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

5.– Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalak, Urola Kosta eskualdekoak:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,3906	1,3638	26,0448	7,6072	2,1751	42,5129

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

(3) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

6.– Vitoria-Gasteizko Udala:

1. Tarifa (1)				2. Tarifa (2)			
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria (4)	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria (4)
3,29551038	1,00459308	26,48	4,50	3,781546902	1,43536873	29,70	5,50

5. Tarifa (3)			
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria (4)
4,177744755	1,435369	29,70	5,90

(1) Lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(2) Igandeetan eta dagokion autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan ezarritako jaiegunetan aplikatuko da, baita larunbatetan ere, 07:00etatik 22:00etara. Lanegunetan ere aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2024ko laneko jaiegunen egutegian (ALHAO, 87. zk., 2023ko uztailaren 26koa, asteazkena) ezarritako igande eta jaiegunez gain, abuztuaren 4an (13:00etatik aurrera), 6an, 7an, 8an eta 9an (Andre Maria Zuriaren jaiak), abenduaren 24an (Gabon gaua) eta 31n (Urtezahar gaua) eta Olarizu egunean 13:00etatik aurrera aplikatuko da.

(3) Ostiraletan, larunbatetan eta dagokion autonomia-erkidegoko araudian eta foru-araudian ezarrita dauden jai-bezperetan 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da.

(4) Gutxieneko tarifa eta 1,2 kilometroko ibilbidea barne.

7.– Getxoko Udala:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,50	1,39	19,05	7,09	1,53	26,90

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan finkatutako jaiegunetan aplikatuko da, bai eta larunbatetan ere 13:00etatik aurrera, eta lanegunetan 22:00ak eta 07:00ak bitartean.

(3) Gutxienez jasotzen denaren barnean dagoen ibilbidea 1.500 metrokoa da.

8.– Leioako Udala:

1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,39	1,3629648	20,29	6,96	1,5075228	26,42

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau igandeetan, autonomia-erkidegoko eta tokiko araudietan aipatzen diren jaiegunetan, eta larunbatetan 13:00etatik aurrera erabiliko da. Lanegunetan 22:00etatik 07:00etara ere erabiliko da.

(3) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea barne hartzen du.

Bigarrena.– Erabaki honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 18a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JESÚS MARÍA GARCÍA DE COS.